

**SAIO KLINIKO OROKORRA – BASURTUKO UNIBERTSITATE OSPITALEA**  
**ERRADIOLOGIA ZERBITZUA**

**HIZLARIA: UDANE OIARTZABAL ELORRIAGA DK.**

**MODERATZAILEA: OLATZ GORRIÑO ANGULO DK.**

**2019KO OTSAILAREN 1EAN, 8:15EAN. GORBEIA EKITALDI-ARETOAN (GOBERNU PABILOIA)**

### **KONTSULTAREN ARRAZOA**

Sabeleko mina eta perimetro abdominalaren handitzea

### **AURREKARI PERTSONALAK**

- 81 urteko gizona.
- Alergiarik ez.
- Erretzaile ohia ( Orain 30 urte).
- Ohitura toxikorik ez.
- DM, HTA eta dislipemia
- 2006: Kartzinoma prostatikoa ( azken kontrol analitiko-erradiologikoan erremisioan)
- Emaztearekin bizi da.

### **ORAINGO GAIKOTASUNA**

Orain 10 egunetik sabel perimetroaren handitze progresiboa aurkezten du, sabel minarekin batera. Gorakorik ez. Heste erritmoaren alteraziorik ez. Sukarrik ez. Pisu galerarik ez ezta beste sintoma sistemikorik.

### **MIAKETA FISIKOAK eta FROGA OSAGARRIAK**

Miaketa fisikoa: sabel perimetroaren handitzea

Odol eta gernu analisiak: alterazio nabaririk ez

Toraxeko erradiografia: alterazio gabea

Abdomeneko erradiografia: Luminogramaren alterazioa (hesteak erdiratuta daude) eta dentsitate handitze orokortu bat nabari da, organo solido eta psoas muskuluen itzalen ezabatzearekin batera, hau da, aszitis zeinuak daude.

**Zein da zuen ustezko diagnostikoa?**

**Zer egingo zenukete ondoren?**